

# ETNOGRAFIA MUSEOA · JORGE OTEIZA BAZTAN · MUSEO ETNOGRAFICO



Laguntzailea 2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA · Nafarroako Gobernua
Colabora 2012 CONTIGO AVANZAMOS · Gobierno de Navarra

## BAZTAN

Xarma handiko paisaia, armarridun etxe zaharrez osatutako arkitektura eta izen handiko gastronomia dira Baztango ezaugarririk nabarmenenak . Horretaz gain, bereziki nabaria izan da Nafarroan izan duten izaera historiko zein etnografikoa.

Baztanek, tradizioz, Nafarroako legeriak onartutako antolaketa juridiko berezia izan du, egun indarrean jarraitzen duena. Ondorioz, berezko baliabide juridikoez hornitzeko eta horiek baliatzeko gaitasuna izan duten hamabost lekuk udalerri bakarra osatzen dute.

Baztango armarriak xake- joko taula zuri- beltza irudikatzen du eta etxe nahiz baserri gehienetako aitzinaldean ageri da, bertakoen kaparetasunaren seinale. Izan ere, Karlos Bianako Printzeak 1440 urtean baztandarrak aitonen seme-alabak zirela berretsi zuen bere nobletasun-agirian. Geroztik, hainbat baztandar esparru politiko eta kulturalean nabarmendu izan dira, batzuk bere sorlekuan berean, eta bertze batzuk Europan eta bereziki Ameriketan. Egun, Estatu Batuak, Mexiko, Argentina eta Ameriketako bertze hainbat herrialdetako diasporako baztandarrek harreman estua dute euren sorlekuarekin.

Baztango izaera hizkuntzaren, folklorearen eta usadioen berezitasunean ageri da. Horren isla dira urteko egutegiak biltzen dituen adierazpen kulturalak, haurrek hain gogoko duten Urteberri egunarekin hasi eta inauteri, feria, besta nahiz Eguberrietako folklorearekin bukatzen direnak.

### MUSEOA

Puriosenea edo "mariuen etxea" izenekoan kokatzen da, Braulio Iriarte karrikan, aspaldi, eguzkiak bertan indarrez jotzen zuelako edo, "Eguzki karrika" deiturikoan, hain zuzen ere. Puriosenea Elizondoko alde zaharreko etxeen artean zaharrenetarikoa da. Izan ere, Nafarroako Monumentuen Katalogoan XV eta XVI. Mendeetan eraiki zela ageri da. Baserrien ohiko egitura izan arren, eraikinaren etxaurrea harearrizko harlanduz egina da, arku konopial itxurako sei leiho geminatu eta puntu erdiko arku itxurako ataria ditu. Atari horren arku-barnera JHS Kristoren anagramaz, borobilez eta erdian ageri den zirkulu itxurako grabatu batez hornitua dago.

Iturria- Reparaz familiak 2001. urtean eman zion Elizondoko herriari Puriosenea erabiltzeko baimena, bertan Baztango historia eta usadioak bilduko zituen museoa paratzeko. Proiektua 2003. urtean jarri zen martxan, Baztango Jorge Oteiza Museo Etnografikoak urte horretan bertan ireki zituelarik ateak Museoan ikusgai dira azken hamarkadetan desagertu edo zeharo aldatu diren Baztango bizimodu eta lanbideekin lotutako tresnak. Haisera- hasierakoa da Jorge Oteizak museoarekin izandako lotura, 2002. urtean museoari "Amatasuna" izeneko eskultura eman zionetik, hain zuzen ere. Eskultura museoko lorategian dago ikusgai.

Berriki, museoan hainbat aldaketa egin dira, Javier Ziga artistaren margo bilduma bertan paratu ahal izateko. Bilduma Javier Ziga Fundazioak Baztango Udalari eman zion. Muntaia museografiko berri honen helburua artistaren obra kostunbristak eta pieza etnografikoak lotzea da. Izan ere, nabaria da Zigaren lanaren atal batek duen kutsu kostunbrista. Pintura horietan Zigak Baztanek berezkoak dituen adierazpenak islatu zituen. Ondorioz, museoak, Baztango iragana ezagutzeko ibilbide oroitarazle erakargarria eskaintzen du, ahaztutako tresna horiek eta erabili zireneko giroa kalitate handiz irudikatzen duten margolanekin lotzen baitira.

### *BILDUMA ETNOGRAFIKOA*

Beheko solairuan garraiorako behi edo idi- parea irudikatzen da, Nafarroako iparraldean egiten zen gisan uztarriaz horniturik. Ondoko gelan, Baztanen erabilitako zenbait tresna ikusten ahal dira Tresna horiek hainbat lanbidetan, batez ere zurezko tresnak egin eta konpontzen zirenetan, baliatzen ziren. Halaber, bertakoak izateagatik nabarmenak dira kaikugileak kaikuak (esnea biltzeko ontziak) edo eskalapuinak (eskalapoiak, zurezko pieza bat hustuz egiten diren oinetakoak, baserritarrek erabili ohi zituztenak) egiteko erabiltzen zituen laztabinak eta marrazak.

Pareko sala txikian eskualdeko ondare megalitiko zabala azaltzeko hainbat pieza eta dokumentu biltzen dira.

Eraikinaren gibelean dagoen lorategi publikoko arkupeetan nekazaritza eta abeltzaintzarako tresneria eta zapinoak (mendian enborrak garraiatzeko erabiltzen ziren burdinazko kakoak) ikuste ahal dira. Soalarreko iruinarria dugu, zalantzarik gabe, museoko atal honetako piezarik garrantzitsuena. Harrian landua, gerlari baten irudia antzematen da.

Lehenengo solairuaren jatorrizko banaketa mantendu da, lau angeluko zurezko zutabeen arteko trenkadak ikusgai direlarik. Kristalezko hormatalek pareta zaharrak ordezkatu dituzte, lekuari gardentasuna emanez eta halaber, erakustokien bidez tokia banatzeko aukera emanez. Horietan, Baztango berezitasun administratiboaren inguruko piezak ditugu ikusgai, bai eta erlijio, folklore, kirol, janzkera eta elikaduraren ingurukoak ere. Bildutakoen artean, nabarmendu beharrekoak dira aspaldian Batzar Nagusia biltzen zen salako zizeiluak, pilota jokoarekin loturiko tresnak, esnea biltzeko eta tratatzeko hainbat ontzi eta kandelak egiteko prozesua azaltzen duen muntaia txikia. Bukatzeko, solairu honetan ikusgai daude XX. mendeko Baztango logela eta sukalde baten ereduen irudikapenak.







## EL VALLE DE BAZTÁN

Baztán se caracteriza por sus paisajes idílicos, su potente arquitectura de antiguas casas blasonadas y su gastronomía merecidamente renombrada. Pero además de esto, posee una de las personalidades históricas y etnográficas más acusadas de Navarra.

El Noble Valle y Universidad de Baztán conserva una organización jurídica tradicional y peculiar reconocida en la legislación de Navarra, por la que todo el valle forma un término municipal común, integrado por quince lugares, que siempre han gozado y se han dotado de instrumentos jurídicos propios.

Su blasón, un damero de ajedrez escaqueado en blanco y negro, se asoma a las calles grabado en casi todas las fachadas de las casas y caseríos, puesto que la hidalguía de los naturales del valle así lo permite. Hijosdalgo desde 1440, en virtud de la Ejecutoria confirmada por Carlos, Príncipe de Viana, Baztán ha dado personalidades sobresalientes en muchos campos de la actividad política y cultural no sólo en su solar, sino en otros lugares de Europa y, muy especialmente, en América. Actualmente, la diáspora baztanesa mantiene una relación muy intensa con sus orígenes desde Estados Unidos, México, Argentina y otros países americanos.

La personalidad peculiar de Baztán se refleja en múltiples aspectos de su lengua, su folklore, sus tradiciones y costumbres, que se suceden en las distintas estaciones a lo largo del año, siguiendo un rico y variado calendario popular desde el entrañable "Urteberri" infantil de Año Nuevo y pasando por el carnaval rural, sus ferias y mercados ganaderos, y sus fiestas hasta llegar al folklore navideño.



### *EL MUSEO*

El museo tiene su sede en la casa Puriosenea, también llamada popularmente "casa de los moros", una imponente construcción que se levanta en la calle Braulio Iriarte, antes "calle del Sol" por su orientación solanera. Se trata de uno de los edificios más antiguos del casco urbano de Elizondo, fechado por el Catálogo Monumental de Navarra entre finales del siglo XV y principios del XVI. Aunque adopta una estructura muy similar a la del caserío, la fachada es de sillares de arenisca roja, con seis ventanas geminadas de arcos conopiales y un arco de entrada de medio punto, con el intradós decorado con bolas y el anagrama de Cristo, JHS, grabado en el centro de un círculo.

En 2001, la familia Iturria-Repáraz cedió generosamente el uso de esta casa al pueblo de Elizondo, con el fin de que se destinase a albergar un museo que recogiese la historia y costumbres de Baztán. Este proyecto se hizo realidad con la inauguración en 2003 del Museo Etnográfico de Baztán "Jorge Oteiza", que muestra piezas relacionadas con las formas de vivir y de trabajar propias del Valle, ya desaparecidas o radicalmente transformadas en las últimas décadas. El nombre del escultor vasco Jorge Oteiza se unió desde el principio al proyecto museístico al donar en 2002 la escultura "Maternidad", que se encuentra en el pequeño jardín frente al museo.

Recientemente, el museo se ha transformado para alojar la colección pictórica del artista Javier Ciga, cedida al Ayuntamiento de Baztán por la Fundación que lleva su nombre. El objetivo del nuevo montaje museográfico ha sido el establecer un diálogo entre las piezas etnográficas y las obras del artista, principalmente con aquellas de carácter costumbrista, una faceta de Ciga que le llevó a plasmar tipos y expresiones propios del carácter baztanés. De esta manera, el museo ofrece al visitante un recorrido evocador del pasado del Valle, doblemente atractivo al conjugar la contemplación de los enseres recuperados del olvido con las escenas que recrean, con una gran calidad artística, los ambientes en los que fueron utilizados.

### *LA COLECCIÓN ETNOGRÁFICA*

La planta baja acoge la recreación de una yunta de vacas o bueyes para el transporte, aparejada a la manera típica de los valles norteños de Navarra. En una sala contigua se exponen distintas piezas relacionadas con los oficios artesanales que se desarrollaron en el Valle, fundamentalmente aquellos que se ocupan de la elaboración y reparación de objetos hechos en madera. Entre ellos destaca como propio de la zona, la colección de barrenas y cuchillas característicos del kaikuegile, el fabricante de kaikus o recipientes de madera para la transformación de la leche, así como de los eskalapuinak o zuecos.

Una pequeña sala situada enfrente muestra una selección de piezas y documentos que explican el complejo y rico patrimonio megalítico de época prehistórica en la zona.

La trasera del edificio está ocupada por un jardín de acceso público, en cuyo porche se exhibe una colección de maquinaria agrícola, utillaje para la cría del ganado y los característicos zapinoak o ganchos para arrastrar los troncos cortados en el monte. La pieza más importante, sin duda, de esta parte del museo es el imponente menhir de Soalar, que presenta decoraciones labradas en su superficie, con motivos que parecen representar un guerrero.

La planta primera conserva su división interna original de tabiques entre pilares cuadrangulares de madera, habiéndose sustituido la mayoría de los muros por paños acristalados, conformando un espacio a la par diáfano y compartimentado en expositores. En éstos se exhiben piezas que ilustran temas concernientes a la peculiaridad administrativa de Baztán, la religión, el folklore, el deporte, la indumentaria y la alimentación. Entre los objetos que se han recogido destacan algunos escaños de la antigua sala donde se reunía la Junta General del Valle, los enseres relacionados con el juego de pelota, varias vasijas de madera para la transformación y el consumo de la leche y un sencillo montaje que explica la fabricación artesanal de velas. Finalmente, esta planta acoge la reconstrucción ideal de una cocina y un dormitorio típicos baztaneses de hacia comienzos del siglo XX.





# JAVIER CIGA

## PINTOREAREN PROFIL BIOGRAFIKO ETA ARTISTIKOA

Javier Ciga Echandi (1877-1960) Iruñean sortu zen. Amaren aldetik eta ezkontza-kontuak zirela-eta Baztani loturik zegoen. Baztango paisajea, baztandarrak eta haien ohiturak pintatu zituen; funtsean, herriaren muina bereganatu zuen.

Bere lanaren erroak Erromantizismo ondoan eta Errealismoan barneratzen dira. Lehenetik, ama lurrari eta herritarrei zien maitasuna hartu zuen; bigarrenetik, berriz, akademizismoa gaindituz errealitatea agertzeko eta perfekzioa erdiesteko nahia. Parisen egon zen eta Inpresionismoaren eta Inpresionismo ondoaren erabilera eta teknika berriak ekarri zituen handik. Dena dela, nahita, perfekzio errealistari eta pinturaren balio handiei loturiko eredu estetiko propioari jarraiki zitzaion Ciga. Ia genero eta teknika guztiak landu zituen maisuki.

Cigaren pintura doitasun teknikoan eta ongi ikasitako lanbidean funtsatzen da; egiazko pinturatik haratago doa, pintura handi, orekatu, lasai eta karrankarik gabea egiten baitu. Bere pintura dokumentu soziologiko eta etnografikoa da eta, horri esker, gaur egungo ikuslea ezinbestean galduriko antzinako mundu baterantz eramaten du.

## *BILAKAERA ARTISTIKOA*

LEHEN ALDIA. FORMAZIOA ( 1892 -1908 )
MADRILGO ALDIA ( 1909 -1911 ).BIDAIA EUROPARA (1911 – 1912 )
PARISKO ALDIA: FORMAZIOA ETA SENDOTZEA ( 1912 – 1914)
HELDUAROA (1915 – 1936 )

" NIRE EMAZTEAREN ERRETRATUA" " RETRATO DE MI MUJER ", 1917.



KONPROMISO POLITIKOA. GERRA ZIBILA (1936 – 1939 )
Bizi izan zen bitartean politikoki konprometitua izan zen. Ideia nazionalistekin bat, euskararen eta euskal kulturaren defentsore izan zen. Iruñeko Udaleko zinegotzi ere izan zen EAJren izenean (jelkidea baitzen). 61 urte zituela torturatu eta urte eta erdiz kartzelan sartu zuten ("Kartzelako marrazkiak").
AZKEN ALDIA ( 1939 -1960 )

## *ERAKUSKETAREN IBILBIDEA*

BEHEKO SOLAIRUA: Koadroa – Ciga bildumaren aurkezpena.

LEHENDABIZIKO SOLAIRUA:
"ARTZAINA". 1910ean egindako lan honetan gailentzen dira atmosferaren tratamendua, ipar lainoaren efektua, zeruko goibelen harat-honata eta irudiaren zirriborratzea.

1914an tamaina handiko lau koadro pintatu zituen Iruñeko Euskal Zentrorako. Navarro Villosladaren Amaya o los vascos en el siglo VIII eleberrian oinarritutako lan horiek narratiboak dira, dekorazio-lanak funtsean eta haietan gai sinbolikoak eta historikoak nahasten dira. Hortxe ditugu, bestalde, "Jauregizarreko arbolapean" eta "Nafarroako lehen Erregearen aldarrikapena" lanak eta "Mezatik ateratzea" eta "Sokadantza" lan etnografikoak. Lan horietan denetan ageri dira multzoaren ideiaren aldeko zirriborratzea eta kontatzeko ahalmen handia.

" BALDA DOKTOREAREN ERRETRATUA" " RETRATO DEL DOCTOR BALDA ", 1914.



BIGARREN SOLAIRUA:

ETXEAREN GIBELALDEKO HORMA: FAMILIAKOEN ERRETRATUA.
Haurrei egindako erretratuak dira, Natitxu eta Migueltxo seme-alabei eta koinata Fely neskari egindakoak. Naturaltasunak, samurtasunak eta bizitasunak aski ongi definitzen dute pintoreari hain hurbilekoa zitzaion haurren mundu hori.

Erdian, bere "Autoerretratua" ageri da. Velázquez bezala, indartsu ageri da pintatzen, koadroak gibelean dituela, "koadroaren barneko koadroa" baliabide barrokoa erabiliz.

Emazte Eulaliari bi erretratu egin zizkion, bata albotik hartuta eta bestea gorputz osokoa. Ingeles tradizioko lan preziosista eta dotoreak dira, eta irudia alderatua ageri dira. Paisaia erromantikoa gibelean dutela, luxu handiko soinekoaren kalitatea eta gardentasuna agerian gelditzen dira.

ESKUINEKO ALBOKO HORMA.
Madrilgo aldia. Lanak zehatzak eta perfektuak dira marrazkian, bai naturalean egindakoak, bai eredu zaharren gaineko kopiak. Honelakoa da "Samotraziaren garaipena" akuarela.

Ikatz-ziriarekin marrazturiko "Estudioa" lanak San Fernandoren Akademiaren urrezko domina jaso zuen. Lan konplexua da, anatomien eta eskortzoen tratamenduagatik eta argi-ilunen jokoagatik.

Errealismoak goia jo zuen "Zaharra biolinarekin" lanean; itxura gogor eta zakarrak pertsonaiaren berezko duintasunarekin bat egiten du.

Parisko aldia. Bere teknikari inpresionisten eragina gehitu zion eta hori nabari da pintzelkada askean, aire zabaleko pinturan eta Cézanneren konstruktibismoan, dela Baztango baserriaren arkitekturan, dela bodegoian. Horren erakusgarri dira Parisko eta Baztango paisaiak ageri diren oholtxoak. Orobat, Faubismotik hurbil, kolore bortitzeko orbanagatik da nabarmentzekoa "Gau iluna Senan".

Salaberritarren gorputzerdiko erretratuak. Horien artean On Manuel da nabarmentzekoa, aurpegiaren eta eskuen tratamendu bikainagatik.

ETXE AITZINEKO HORMA.
"Guillermo Balda doktorearen erretratua". 1914ko lan honetan bateratzen dira erretratatuaren duintasun eta kaptazio psikologikoa eta Zurbaranen estiloan argi-foko modura erabilitako kolore zurien erabilera aparta; kolore zuri horiek leihotik sartutako argi hotzarekin nahasten dira eta paregabeko aseptsia giroa sortzen da. Aldi berean, objektuen kalitateei erreparatzen die, hots, zeramikei, metalei eta medikuaren tresnei.

"Erruletaren konbinazioa". 1912tik 1914ra bitartean egindakoa, trazu

" ELIZONDO MERKATUA" " EL MERCADO DE ELIZONDO".1914.
Iruñeko Udala /Ayuntamiento de Pamplona.



zehatz eta indartsuko gorputz biluzi honetan haragi guriko eta nakaritxurako anatomia ederki lantzen da. Kurbak nabarmendu eta haien sentsualitate ederra areagotzen duen argi-joko gozoa erabiliz, akabera eta modelatua ere leunak dira. Kolore-gama orekatukoa, diwana estaltzen duen arabeskoarekin, kuxinarekin, tapetearen kolore berdearekin edo gibelaldeko gortinaren urdin biziarekin kontrastatua. Alderdi horiek guztiek lana moderno egiten dute.

"Sagardien" edo "Elizondoko Neskatxak". 1915ekoa da, Baztango paisaia gibelean duela, zeru beltzeko ilunabarrean bi gazte daude. Haien bolumetria nabarmentzen da argi-ilunen jokoarekin eta horrek eszena etnografikoaren errealismoa eta saski eta sagarretan ageri diren natura hilen xehetasuna islatzen ditu.

EZKERREKO ALBOKO HORMA.
Baztango paisaiak lanean Baztanen edertasuna islatzen jakin zuen. Karrikatxar zuen gustuko eta huraxe erakutsi zuen. Moneten erara, argiak arkitektura eraldatzeko eta desitxuratzeko duen ahalmena erakutsi zuen.

"Kartzelako marrazkiak" sailekoak libreta batean egindakoak dira, arkatza hartu eta unean-unean marrazturikoak. Kartzelako kideak ageri dira kartzelako egunerokoetan. Trazu ziurrak eta modelatua erabiliz, perspektibaren irudipena erdiesten du.

"Musa". Hondar urteetan eginiko lan honen konposizioa arrunt orekatua da eta, gibelalde neutroaren gainean, pertsonaien itzalek sakontasun handiagoa ematea erdiesten dute. Jokoaren funtsa erakusten da jokalarien arteko begiratu bizi, azeri eta makurretan eta, bereziki, erdialdeko pertsonaiarenean.

GUNE BEREZIA:
"Mohamed-Ben-El Peli-Makurra. Lan honetan aitzinaldera begira dagoen gazte baten bustoa ageri da, musulmanen erara jantzia (Rodriguez Juguera da, durbante batez jantzia). Lan honetan azpimarratzekoak dira Zurbaranen estiloko kolore zuriak eta ikuslearekin bat egiten duen begirada bizi eta sakona. 1910etik 1911 bitarteko Madrilgo aldikoa da, 1913ko data badu ere.

"Estudioa"(1912-14). Lan hau garrantzitsua da pinturaren ikaskuntzaren ikuspuntutik. Bolumena irudikatzen da, gero eta geruza enpastatuagoen gainean bata bestearen gainean geruza finak paratuz.

ξ Pello Fernández Oyaregui.
Bigarren Hezkuntzako Historia katedraduna, Artearen Historiako irakaslea eta Ciga Fundazioaren idazkaria.

# PERFIL BIOGRÁFICO Y ARTÍSTICO DEL PINTOR JAVIER CIGA.

Javier Ciga Echandi (1877-1960), nació en Pamplona, por su ascendencia materna, matrimonio y relación pictórica, quedará ligado al Baztán, donde pintó el paisaje, los tipos y sus costumbres, captando la esencia del pueblo.

Su obra, hunde sus raíces en el Postromanticismo y en el Realismo, del primero tomará su amor a la tierra y a las gentes, del segundo su obsesión por plasmar la realidad y llegar a la perfección, superando el academicismo. De su estancia parisina, incorporaría los nuevos usos y técnicas del Impresionismo y Postimpresionismo, si bien Ciga, conscientemente, se mantuvo fiel a su ideal estético ligado a la perfección realista y a los grandes valores de la pintura. Con inigualable maestría, trató prácticamente todos los géneros y técnicas.

La pintura de Ciga, se fundamenta en el rigor técnico, en el oficio bien aprendido, y trasciende a una Pintura de Verdad, con mayúsculas, equilibrada, serena, sin estridencias. Constituye un documento sociológico y etnográfico, que al espectador actual le transporta a ese mundo anterior irremediablemente perdido.

## *EVOLUCIÓN ARTÍSTICA.*

PRIMERA ETAPA DE FORMACIÓN ( 1892 -1908 )
ETAPA DE MADRID ( 1909 -1911 ). VIAJE A EUROPA (1911 – 1912 )
ETAPA DE PARIS: FORMACIÓN Y CONSOLIDACIÓN (1912–1914)
ETAPA DE MADUREZ (1915 – 1936 )
COMPROMISO POLÍTICO. GUERRA CIVIL (1936 – 1939 )
Su existencia fue compromiso político, fiel a su ideario nacionalista, fue defensor de la lengua y cultura vasca. Desempeñó el cargo de concejal en el Ayuntamiento de Pamplona por el Partido Nacionalista Vasco al cual estaba afiliado. A sus 61 años es torturado y encarcelado durante año y medio ("Dibujos de la cárcel").
ÚLTIMA ETAPA ( 1939 -1960 )

## *ITINERARIO EXPOSITIVO.*

PLANTA BAJA: Cuadro – Presentación de la Colección Ciga.
PRIMERA PLANTA:
"PASTOR": obra realizada en 1910, sobresale el tratamiento de la atmósfera, efecto de niebla (iper lainoak), nubes en movimiento (cielo activo) y abocetamiento de la figura.

En 1914, pintó cuatro cuadros de gran formato de carácter narrativo y decorativo para el Centro Vasco de Pamplona, basados en la novela de Navarro Villoslada "Amaya o los vascos en el siglo VIII", obras donde se mezcla la temática simbólica e histórica. "Bajo el árbol de Jauregizar", "Proclamación del Primer rey de Navarra" y otras dos de contenido etnográfico, "Salida de Misa"y "Sokadantza". Todas ellas presentan abocetamiento, a favor de la idea de conjunto y gran potencial narrativo.

SEGUNDA PLANTA:
PARED DE LA CONTRAFACHADA: RETRATO FAMILIAR.
Serie de retratos infantiles, correspondientes a sus hijos Natitxu, Migueltxo y a su cuñada, Fely niña, donde espontaneidad, ternura y viveza definen magistralmente ese mundo infantil tan próximo al pintor.

En el centro, aparece su "Autorretrato", al igual que Velázquez, se nos muestra pletórico en su acción de pintar, con sus obras al fondo, utilizando el recurso barroco
"cuadro dentro de cuadro".

Dos retratos de su mujer Eulalia, un busto de perfil y otro de cuerpo entero, caracterizado por su preciosismo y elegancia de tradición inglesa, en el que la figura aparece ladeada . Se recrea en las calidades y trasparencias del lujoso vestido con fondo de paisaje romántico.

PARED LATERAL DERECHA.
Etapa de Madrid: rigor y perfección en el dibujo, tanto del natural, como de las copias de modelos antiguos, representada en la acuarela de la "Victoria de Samotracia".

"Estudio", dibujo al carboncillo, con el que obtuvo la medalla de oro de la Academia de San Fernando, obra compleja por el tratamiento de las anatomías, escorzos y juego de luces y sombras.

El Realismo llega a su punto más álgido en "Viejo con violín", donde aúna apariencia dura y ruda con la dignidad propia del personaje.

Época de París: incorporó a su técnica, influencias impresionistas en su pincelada suelta, pintura al aire libre y el constructivismo cezaniano tanto en la arquitectura del caserío baztanés como en el bodegón. Ejemplo de todo ello son las pequeñas tablitas de paisajes parisinos y baztaneses. Cabe resaltar su obra "Nocturno en el Sena", por su mancha de color violento, próximas al Fauvismo.

Retratos de medio cuerpo de los Sres. Salaverri, destaca Don Manuel, con el magnífico tratamiento de rostro y manos

PARED DE LA FACHADA.
"Retrato del Doctor Guillermo Balda"1914, donde se aúnan, la dignidad y captación psicológica del retratado, con la utilización magistral de los blancos como foco de luz al estilo zurbaranesco, que se entremezclan con la luz fría procedente del ventanal, creando un ambiente de asepsia inigualable. Al mismo tiempo, se recrea en las calidades de los objetos: cerámicas, metales e instrumental médico.

"Combinación de la ruleta"1912-14, desnudo de trazo preciso y vigoroso, con un tratamiento perfecto de la anatomía, de carnaciones blandas y nacaradas, delicado acabado y modelado con un sutil juego de luces que remarcan las curvas y acentúan la elegante sensualidad. Gama cromática armoniosa, contrastada por el arabesco que cubre el diván, cojín, verde del tapete o azul intenso de la cortina del fondo; aspectos todos ellos, que dan modernidad a la obra.

"Sagardien" o "Elizondoko Neskatxak"1915, sobre fondo de paisaje baztanés, en un atardecer plomizo, se sitúan dos jóvenes, cuya volumetría queda resaltada por el juego de luces y sombras, reflejando el realismo de la escena etnográfica y el detallismo de las naturalezas muertas en cestos y manzanas.

PARED LATERAL IZQUIERDA.
Paisajes baztanéses, donde supo reflejar la belleza, que tan propicia se le manifestaba en Baztán. Con uno de sus txokos preferidos, Karrikatxar, experimentaría a lo Monet, la capacidad transformadora y desfiguradora de la luz sobre la arquitectura.

Serie de "Dibujos de la cárcel", de factura momentánea, con libreta y lápiz. Refleja a sus compañeros en las distintas vivencias carcelarias. A base de trazos seguros y del modelado, consigue la sensación de perspectiva.

"El mus", obra de última época, de composición muy equilibrada. Sobre fondo neutro, las sombras de los propios personajes, consiguen dar profundidad. Capta la esencia del juego, en la interrelación de las miradas vivas, astutas y hasta maliciosas, reflejada especialmente, en el personaje del centro.

ESPACIO SINGULARIZADO:
"Mohamed-Ben-El Peli-Makurra, representa el busto de un joven de frente, ataviado a la manera musulmana, (Rodriguez Juguera con un turbante) donde destacan los blancos al estilo zurbaranesco, y una mirada viva y profunda que interconecta con el espectador. Etapa madrileña 1910-11, aunque aparece fechada en 1913.

"Estudio"(1912-14) obra importante, desde el punto de vista del aprendizaje pictórico, representación del volumen a base de superponer capas muy finas a otras cada vez más empastadas.

ξ Pello Fernández Oyaregui.
Catedrático de Historia de Enseñanza Secundaria, Profesor de Historia del Arte y Secretario de la Fundación Ciga.

NATI,1918; MIGUELTXO, 1932; FELITXU,1915;
"HAURRA MAHATSEKIN" "NIÑA CON UVAS", 1917.

